



## K bulegoa

*saiot irekia*

**Elkarlanaren mugak, mugaldeko elkarlana**

2023ko apirilaren 25a

—  
sesión abierta

**La colaboración y sus límites,  
cooperación en territorio fronterizo**

25 de abril de 2023

Saio irekia.

## Elkarlanaren **mugak**, mugaldeko elkarlana

**12 bat lagun elkartu ginen Irungo Oiasso Museoaan saio irekian. Batzuk irundarrak eta besteak inguruko herrietakoak elkarlaneren mugex eta mugaldeko elkarlanaz solastatzeko.**

Lehenik eta behin, K bulegoaren lana aurkeztu genuen, Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldiko kultur sektorearentzat sortutako zerbitzuak kulturgileentzako arreta eta kultura proiektuak garatzeko bidelaguntza eskaintzen du. Ondoren, elkarritzketari lotu gintzaion, saioaren nondik norakoak azalduz: elkarlana ardatz genuen, norbanakotik taldera, elkarlanak dakartzan mugen gainean hausnartu eta gero mugaldeko lurralteetara jauzi egitea zen asmoa, zerbaitegatik ginen eta Bidasoaldean.

Denok bat egin genuen ideia honekin: elkarlana abiatzeko, ezinbestekoa da inguruko sarea ondo ezagutzea, hau da, auzo, herri eta hirietan bizi diren eragileak ezagutzea. Horrek, ezbairik gabe, arindu eta areagotuko lituzke elkarlan aukerak. Saretze helburuarekin, plataforma anitz egin dira, eta egiten dira gaur egun, baina sarritan ez omen da nahikoa, etengabe elikatu behar baitira eta trukaketa guneak bizirik mantentzea bitartekaritza eta koordinazio lan handia eskatzen duelako. Batzuetan, gunea bera bakarrik elikatuko delakoan gaude. Besteetan, eragile batzuk dagoeneko saretuta daudelako. Izan daiteke gure egitasmoen berri emateko denbora tarte txikiak gordetzen ditugula? Edo zaila egiten zaigula geure burua aurkeztea?

Ekintzez aritu ginen ondoren, hau da, zein garrantzitsua den kultur proposamenen entzule eta hartzale ere izatea. Lanak eta artistak gertutik ezagutu eta gure lanetarako elkarlan aukerak aztertzeko. Sektorearen egitura eta antolaketaren berri izatea ere zein garrantzitsua den azpimarratu genuen. Arloka nola badiren elkartea profesionalak, artisten behar eta egitasmoak lantzen dituztenak. Eta zein garrantzitsua den elkarren arteko harremana eta elkarlana sustatzea. Beharren eta ezjakintasunaren aurrean urratsa ematea zein garrantzitsua den. Ez bada nire herrian kultur mahairik, zergatik ez dut nik bada abian jartzen? Zer behar dut? Askotan ez al dira egitura hauek modu irekian hasten eta itxiak izaten bukatzen?

Administrazioari eskatzen diogu agian modu independente batean garatua izan behar duen hori lantzea? Eta administrazioari zuzenean proposamenak egiten badizkiogu? Eta administrazioarekin elkarlanak aktibatzen baditugu?

Eta gure elkarlanerako modu eta gaitasunak? Ohitu egin gara sorkunta eta ekoizpeneko lanketa guztiak gure gain hartzen? Horrek zaildu egiten du lanak partekatzea? Abiadura biziak eta baldintza prekarioek ez ote dute ezinbestean bakarlana sustatzen? Bestalde, talde lanaren benetako balioa ezagutzen dugu? Prest gaude saiatzeko? Jarriko ditugu arriskuan gure gorputzak, gure ohiturak eta ezagutzak, erosotasun eremutik at?

Azpiegitura egokien eske gabiltza etengabeen, baina ezagutzen al ditugu gure hurbileko (eta urruneko) espazioak eta haien erabiltzeko baldintzak? Eta kudeaketan ematen dugun denbora bidaiatzen emango bagenu? Joan-etorriak ez ahal dira informazioa eta ikasbideak ere? Ez al dira ezagutzak lantzeko modu eta gune egokiak?

Irungo udalaren kultur arloko arduradunak etorri izana eskertu genuen, teknikarietako bat eta sailaren zuzendaria, hain zuzen ere. Han egoteak aukera eman zuelako harremanetan zubiak sortzeko eta elkarlanerako bideak zabaltzeko. Tamalez, beste udalerri batzuetako kideak ezin izan ziren etorri, eta haien hutsunea igarri genuen.

Mugaz gaindiko elkarlanari zaitasunak gehitzen zaizkio, izan ere, bi Estaturen arteko aldeek aski moteltzen dituzte prozesuak, esaterako oso bestelako neurri fiskalek, legediek, ohiturek eta abarrek.

K bulegoko Ixiar Garcia bitartekariak saioaren amaieran eragileei proposatu zien kontaktua elkarri ematea harremanetan jarraitzeko. Eta honako hauxe gogorarazi zitzaien bertaratutakoei: edozein zalantza edo beha//r izanez gero, badutela nora jo, hemendik beste edonora salto egiteko. Alegia, bidean laguntzarik behar izanez gero, datozena K bulegora.



**Kulturari adi /  
Atención a la cultura**

943 11 33 43 · [kbulegoa@gipuzkoa.eus](mailto:kbulegoa@gipuzkoa.eus)

Santa Teresa komentua  
Elbiria Zipitria 1  
20003 Donostia  
Gipuzkoa

Sesión abierta.  
**La colaboración y sus límites,  
cooperación en territorio fronterizo**

**Nos reunimos 12 personas en sesión abierta en el Museo Oiasso de Irun, algunas irundarras y otras de pueblos cercanos, dispuestas a conversar sobre la colaboración y sus límites.**

En primer lugar, presentamos el trabajo de K bulegoa, el servicio de atención para el sector cultural de la Diputación Foral de Gipuzkoa que ofrece acompañamiento para el desarrollo de proyectos culturales. A continuación, iniciamos el diálogo explicando el planteamiento de la sesión: nos centramos en el trabajo cooperativo, partiendo del ámbito individual, para reflexionar sobre los límites de la cooperación y terminar hablando de la colaboración en territorios fronterizos, no en vano estábamos en el país del Bidasoa.

Todas coincidimos en la idea de que para iniciar una colaboración es imprescindible conocer bien el tejido de nuestro entorno, las y los agentes que habitan los barrios, pueblos y ciudades. Ello, sin duda, hace más fácil el acercamiento y contribuye a incrementar las posibilidades de colaboración. Con el objetivo de tejer redes, se han creado algunas plataformas, y se continúan en la actualidad, pero muchas veces no es suficiente, ya que hay que alimentarlas constantemente y mantener vivas las zonas de intercambio exige una importante labor de mediación y coordinación. A veces esperamos que la plataforma se alimente por sí sola. Otras veces se desinfla porque algunos agentes ya trabajan en otras redes. ¿Puede ser que reservemos poco tiempo para comunicar nuestros proyectos? ¿O que nos cueste presentarnos y abrirnos a las demás?

A continuación, hablamos sobre las acciones, sobre la importancia de ser oyentes y receptores de las propuestas culturales. Conocer de cerca las obras y artistas y explorar posibilidades de colaboración para nuestros trabajos. También destacamos la importancia de conocer la estructura y organización del sector. Cómo existen asociaciones profesionales por áreas que atienden las necesidades y proyectos de las y los artistas. Y hablamos de la importancia de fomentar las relaciones entre agentes y de valorar el trabajo conjunto. La importancia de dar el paso ante las necesidades y el desconocimiento. Si no hay una mesa de cultura en mi pueblo, ¿por qué no ponerla en marcha?, ¿qué necesito para ello? A menudo estas estructuras ¿no comienzan de forma abierta y terminan siendo cerradas?

¿Pedimos a la Administración que trabaje aquello que quizás deba ser desarrollado de forma independiente? ¿Y si hacemos propuestas directas a la Administración? ¿Y si activamos iniciativas de colaboración con la Administración?

¿Y nuestra forma de colaborar y nuestras competencias para ello? ¿Nos hemos acostumbrado a asumir todas las tareas de creación y producción? ¿Esto no dificulta compartir tareas? ¿El ritmo vertiginoso y las condiciones precarias no fomentan irremediablemente el trabajo en solitario? Por otro lado, ¿conocemos el verdadero valor del trabajo en equipo? ¿Estamos dispuestos a intentarlo? ¿Nos atrevemos a salir de nuestra zona de confort y exponer nuestros cuerpos, hábitos y conocimientos?

Demandamos continuamente infraestructuras adecuadas, pero ¿conocemos los espacios y las condiciones para su uso en nuestro entorno más cercano (y lejano)? ¿Y si pasáramos nuestro tiempo de gestión viajando? ¿Las idas y vueltas no son fuente de información y aprendizaje? ¿No son una forma y un lugar adecuados para cultivar los conocimientos?

Agradecemos la asistencia de responsables del área de cultura del Ayuntamiento de Irun, en concreto la directora del departamento y una de sus técnicas. Porque su presencia permitió crear puentes y abrir vías de colaboración. Lamentablemente, personas de otros municipios de la comarca no pudieron asistir y los echamos en falta.

La cooperación transfronteriza además se dificulta debido a las diferencias entre los dos Estados, que frenan bastante los procesos, como por ejemplo, medidas fiscales, legislación y hábitos, en ocasiones, muy dispares.

Al final de la sesión, la mediadora de K bulegoa Ixiar García propuso a las personas participantes que compartieran sus contactos para continuar. Y se recordó que ante cualquier duda o necesidad tienen a dónde dirigirse. Si necesitas ayuda en el camino, K bulegoa te acompaña. Nos encontrarás en la Parte Vieja de Donostia, en el convento de Santa Teresa.



Kulturari adi /  
Atención a la cultura

943 11 33 43 · [kbulegoa@gipuzkoa.eus](mailto:kbulegoa@gipuzkoa.eus)

Santa Teresa komentua  
Elbiria Zipitria 1  
20003 Donostia  
Gipuzkoa